

Art. 1º.- Atlético San Sebastián Elkarteak **32. LILATON** lasterketa antolatuko du Donostian, 2022ko Martxoaren 6ean.

Art. 2º.- Maila guztietako atletek Atlético SS-ek asignatutako dortsalarekin egingo dute korrika eta hauek ondorengo lekuetan jaso daitezke:

1. **EMAKUMEEN ETXEAN** jaso behar dute ondorengo egun eta orduetan:
 - Martxoak 4(ostirala) eta Martxoak 5(larunbata), 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.
2. Edo izena emateko garaian hautatutako **KIROL DENDAN**:
 - Martxoak 4 (ostirala) eta Martxoak 5 (larunbata) merkataritza ordutegian.
 - Shanti-Kirolak (Tolosa)
 - Mine Vintage (Tolosa)
 - Deportes Apalategi (Donostia)
 - Deportes Apalategi (Zumarraga)
 - Deportes Askasibar Inter Sport (Eibar)
 - Irun (Leire Sport)

 - Vitoria Running Fiz (Vitoria-Gasteiz)

 - Zariquiegui Pamplona (Iruña)

 - Inter Sport (Bilbo)

Edozein pertsonak eskuratu dezake, NAN zenbakia, izen eta abizenak eramatearekin nahikoa izango da, bertan jarritako zerrendetan dortsaleko zenbakia bilatuz.

Art. 3º.- Lilaton programazioa:

- Plaza Gipuzkoan egongo da Kontsigna 09:00etatik 12:00etara.
 - Sobre barruko etiketa ipinita eraman beharko da bertan utzitako poltsan edo motxilan. Balio handiko objekturik ez uztea gomendatzen da.
- 09:30ean, beroketa BOULEVARDean.
- 10:30ean, LILATON lasterketaren hasiera (5Km) BOULEVARDean.
- 10:00etatik 15:00etara, Kontxako kabinetan dutxa hartzeko aukera izango da (Hotel Londres-en altueran).
- 11:30ean, garaikurrak lasterketa amaitutakoan banatuko dira, 11:00etan gutxi gora behera, ALDERDI EDERREN, maila bakoitzeko lehen hirurei, helmugara-iriste hurrenkeraren arabera (denbora ofiziala) sarituko dira, baita hiru talde gendetsuenak ere.

Art. 4º.- Lizentziadun eta lizentziarik ez duten emakumezko atletek parte hartu dezakete.

Art. 5º.- Izen-emateak on-line bakarrik egin daitezke: www.lilaton.es

- **Ohiko inskripzioa: 12€** (11+1 EURO SOLIDARIO-a aurten prezio barruan dago)

(EURO SOLIDARIO-ko 100% irabaziak WHY NOT fundaziora joango dira)

Inskripzioak otsailak 20 arte irekita egongo dira edo dortsalak agortu arte. **Bajak otsailak 10 arte tramitatuko dira eta Urtarrilaren 11etik aurrera ez da dirurik itzuliko.**
Dorsal aldaketak ez dira onartuko.

Art. 6º.- Irteera eta helmuga Boulevard-ean kokatuta egongo da, Kioskoaren altueran.

Art. 7º.- Garaikurrak Alderdi Ederren banatuko dira lasterketa amaitu bezain laster, helmugara-iriste hurrenkeraren arabera eta maila bakoitzeko 3 denbora hoberenak izango dute saria. *(DENBORA OFIZIALA)*.

Klasifikazio orokor bat eta mailaka ezarriko da.

- **JUNIORRAK:** 14 eta 25 urte bitartean.
- **SENIORRAK:** 26 eta 45 urte bitartean.
- **BETERANOAK:** 46 eta 59 urte bitartean.
- **60+:** 60 urtetik aurrea.

Art. 8º.- Animaliak ez dira onartuko lasterketan eta ume-kotxeekin parte hartzea arriskutsua denez, ezingo da erabili.

Art. 9º.- Antolakuntzak baztertu egiten du proba honetan parte hartzeak norberari, beste edonori edota hirugarren pertsona batek atletari eragin diezazkiokeen kalte-galeren edo lesioen ardura.

Art. 10º.- Maskara nahitaez erabili beharko da irten aurretik, jende gehien bilduko den lekua baita. 5 kilometroko ibilbidean, ez da derrigorrezkoa izango maskara erabiltzea, baina behin helmuga-lerroa gurutzatuta, berriro maskara janztea gomendatuko da, ingurunearen segurtasuna bermatzeko.

Art. 11º.- Ezinbesteko kausengatik (ekaitza, eta abar) lasterketa geldiarazi behar bada, antolakuntzak ez du inskripzioen zenbatekoa itzuliko.

Eta COVID-19aren murrizketengatik lasterketa presentziala egiten uzten ez badigute, lasterketa birtualki egingo da automatikoki, eta izena emateko zenbatekoak ere ez dira itzuliko.

Art. 11º.- Lehiakide guztiek, parte hartzeagatik, Araudi hau onartzen dute. Bertan aurreikusia ez dagoena, IAAFeko araudiari erantzungo dio.